



**ARARTEKOAREN HAUSNARKETARAKO ETA HERRITARREN PARTAIDETZARAKO
FOROA
2011-X-26**

Egun on guztioi. Ohore handia da Ararteko erakundearentzat cannabisari buruz eta, zehazki, horren erabilerari, aurea hartu behar diegun segurtasun juridikoko arazoei eta horrekin guztiarekin lotutako politika publikoei buruzko Hausnarketarako eta Herritarren Partaidetzarako Foro hau egin ahal izatea.

Eta, gainera, Kriminologiaren Euskal Institutuaren eskutik eta haren zuzendari ordea den Ignacio Muñagorri jaunaren eskutik aurkeztea; institutu hori gurekin elkarlanean aritu da zenbait alderdiri dagokionez, eta, bereziki, zuzendaritza zientifikoaren inguruan, edizio hau egin dadin. Horiei eta, batez ere, KREIko doktore eta ikertzaile den Xabier Aranari eskerrak eman nahi dizkiegu.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet hizlarietako haien laguntzagatik eta gurekin gaiaren inguruko haien ezagutza zientifikoak eta praktikoak partekatzeagatik.

Ilido horretan, eskerrik asko egun batez zereginak alde batera utzi eta apriorismorik eta loturarik gabe gori-gorian dauden gaiei buruz hitz egiteko aukera ematen duen lan saio honetara gerturatu direnei. Horrek guztion onurarako ideiak eta iritziak helarazteko bidea ematen du. Horrez gain, asko pozten gara foro honetara, besteak beste, honako hauek gerturatu direlako: fiskal nagusia eta Gipuzkoako eta Arabako fiskalburuak, Gipuzkoako Entzutegiko magistratua, Eusko Jaurlaritzako Droga-mendetasuneko zuzendaria, KREIko arduradun nagusiak, Gasteizko eta Donostiako Udaltzaingoaren ordezkariak, baita Eusko Jaurlaritzako Justizia, Osasun eta Herrizaingo Saisetakoak eta Arabako eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargokoak ere. Foroak arrakasta izan dezan, funtsezkoa da erabiltzaileen elkarteetakoak eta drogen kontsumoak eragiten dieten pertsonekin lan egiten duten elkarteetakoak gerturatzea, Ararteko erakundearen kideez gain.



Hortaz, seguruenik eztabaidan den gaia ikuspegi posible guztietatik jorratu dezakegu eta, horretarako, eroso senti gaitzen, goizetan lan egiteko metodologia hau aukeratu dugu, alegia, mintegi formatukoa eta atek itxita. Arratsaldeetan, saioa irekiagoa izango da beste areto batean, auditoriumean, hemen bertan dago.

Duela hilabete batzuk foro hau garatzea mahaigaineratu genuenean, antzeman genuen kontu hori estaltzen duen beloa kendu behar zela eta gaur zenbait ikuspegitatik jorratuko dugun garrik gabeko eztabaida bideratu behar dela.

- Ikuspegi antropologikoa, Juan Gamellaren partaidetzaren bidez.
- Ikuspegi soziologikoa, Joseba Zalakain jaunak, SIISeko zuzendariak, gerturatuko gaitu.
- Ikuspegi mediko/farmakologikoa, Koldo Calladok emango diguna.
- Ikuspegi juridikoa, Manuela Carmenaren eskutik.
- Beste herrialde batzuetan izandako esperientziek emandakoa. Horretarako, egoera horiek ondo ezagutzen dituzten hizlariak izango ditugu: Tom Decorte, Dick Reinking.
- Amaitzeko, Martin Barriusok cannabisaren gizarte klubuen egoerari buruz hitz egingo digu.

Laburbilduz, sakontzeko aukera asko eta kolaboratzaile ezin hobeak. Hitzaldiak laburrak izan daitezten ahalegindu gara, 30 minutukoak, ondoren eztabaidatu ahal izateko.

Ziur nago jardunaldian zehar Droga-mendetasunari buruzko VI. Plana egitearen inguruan eztabaida sortuko dela, baita guztion eta elkarteen ekarpenak egongo direla ere, eta interes handikoa izango dela.

Arartekoak ez du zuzenean parte hartu foro honek hizpide duen gaiaren analisisian. Izan ere, dakizueenez, gure xedea talde ahulenen eskubideak defendatzea eta administrazioaren jarduerak kontrolatzea da baina bistakoa da gure egitekoak,



bereziki elkarteei eta gizarte taldeei dagokienez, gaur esku artean daukagun gaiaren antzekoak jorratzeko eta bertan parte hartzeko aukera ematen digula.

Horregatik, cannabisaren erabilera buruko gaixotasunen arazoan ikuspegitik jorratu dugu eta une honetan Buruko osasuna EAEko espetxeetan eta adingabeen zentroetan izeneko txosten berezia amaitzen ari gara (egiazki, txosten hori egiten gurekin elkarlanean ari diren zenbait pertsona gaur hementxe daude).

Agerikoa da droga, kontsumo mota desberdinak eta debeku zorrotza eta substantzia jakin batzuen sustapen neurrigabea barne hartzen dituzten legegintzako erantzunak biltzen dituen gizartean bizi garela, zenbait kasutan erakunde publikoek sustatzen dituzte. Hala ere, zigortzeko kontrolen zorrotasun handiagoak edo txikiagoak ez du zerikusirik horien kontsumitzaileengan dituzten eraginekin, bai, ordea, alderdi historiko, ekonomiko, politiko eta ideologikoekin.

Cannabisa, beste edozein droga bezala, kalteak eragiten dituen substantzia bat da eta gauza bera gertatzen zaie egun legezko beste egoera bat duten beste droga batzuei ere; ikuspegi zientifiko batetik begiratuta, ondorio kaltegarriagoak eduki baditzakete ere.

Cannabisaren deribatuak dira gehien kontsumitzen diren eta mundu osoan zehar gehien salerosten diren droga toxikoen, estupefazianteen eta substantzia psicotropikoen arloko nazioarteko hitzarmenen barruan kokatzen direnak. Drogen eta Toxikomaniaren Europako Behatokiaren Txostenean (DTEB 2010) jasotzen den moduan, cannabis eta horren deribatuak 172 herrialde eta lurraldetan lantzen dira eta, Europaren kasuan, laborantza zabaldua dago eta gehiago zabalduko dela aurreikusten da. Gutxi gorabehera munduko biztanleriaren % 3,7k (146 milioi pertsonak) cannabis kontsumitu du haren bizitzaren uneraren batean. Europako esparruari lotzen bagatzaizkio, 15 eta 64 urte bitarteko bost pertsonatik bat baino gehiagok (75,5 milioi) substantzia hori kontsumitu du haren bizitzan.



Datu horiek agerian jartzen dute cannabisa salerosi eta kontsumitze aldera egun dagoen politika hertsia bitartez ezingo dela lortu eskaintza eta demandaren murrizketa esanguratsua. Hainbat gizarte esparrutan giza baliabideen eta baliabide materialen gaineko inbertsio handia egin bada ere (hezkuntza, prebentzioa, osasuna, polizia, epaitegia, espetxea, etab), munduan milioika pertsonak substantzia mota hori kontsumitu nahi dute.

Historikoki, cannabisa eta horren deribatuak zenbait xedetarako erabili dira: gastronomikoa, erlijiozkoa, sormenezkoa eta artistikoa, industrial, terapeutikoa eta ludikoa, baita gizarteratzeko prozesu batzuetan ere. Substantzia horiek nazioarteko hitzarmenen zerrendetan sartzeak erabilera terapeutikoen eta erabilera ludikoen muga handia ekarri du legezketasunaren eremuan: hamarkada batzuen buruan ez zen horren potentzial terapeutikoa behar adina ikertu mundu zientifikotik at dauden arrazoiengatik. Laborearekin, salmentarekin edo kontsumoarekin zerikusia duten ekintzen zati bati zigor edota administrazio arloko zigorra ezartzeko aukera gizarte kontrol gisa -formala edo informala- erabili da eta, oro har, gazteen edota baliabide gutxiago dituzten pertsonen aplikatzen zaie.

Ikuspegi ekonomikotik, cannabisaren eta horren deribatuen komertzializazioak eta kontsumoek milaka milioi euro sortzen dituzte, bai legezko ekonomiaren esparruan (hazien salmenta, erabilera terapeutikorako laborea, labore bidegabeak eta kontsumitzaileak kontrolatu eta biltzeko erabilitako baliabideak, argitalpenak, terapia...), bai legez kontrako ekonomikoaren esparruan (plantazio ilegalak, legez kontrako merkataritza, kapitalen zuritzea, etab.).

Testuinguru horretan substantzia mota hori *merkatu beltzera* jo gabe eskuratu eta kontsumitu ahal izatea eskatzen duten pertsonak daude -dela modu indibidualean edo taldean-. Gainera, merkatu horretan, produktuaren kalitatezko bermea ez edukitzeaz gain, zerga kontrol guztietatik at geratzen diren zenbateko ekonomikoak ordaintzen dira eta, beraz, legez kontrako jokabideetan erabiltzeko aukera dago (ustelkeria, dirua zuritzea, etab.).



Berrogeita hamar urte bete dira 1961eko Estupefazianteen Konbentzio Bakarra egin zenetik eta *Arartekoaren Hausnarketarako eta Herritarren Partaidetzarako Foro* honen xedea da cannabisaren egungo egoerara -erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak-, hurbiltzea eta alderdi horietan agerian jartzen dira, nahi baino gehiagotan, zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren printzipioen eta estupefazianteen arloko nazioarteko zenbait hitzarmen sinatuta hartutako betebeharren arteko aldeak.

Ezin dugu ahaztu dagoeneko gure gizartean abian den -eta batzuetan saihesten den- eztabaida bati buruz ari garela, herritar-agiritzat jo zena Eusko Legebiltzarreko Erakundeen, Justizia eta Herrizaingo Batzordera Elkarte Cannabikoen Federazioko ordezkariak bertaratu baitziren landare hori hazten eta kontsumitzen dutenei eragiten dien segurtasun juridikorik ezarekin amaitzeko proposamen politikoak eskatuz. Kontu honetan, beste askotan bezala, gauzak ez dira zuriak edo beltzak eta beharrezkoa da borrokan dauden eskubide eta interesen artean oreka bat bilatzea, gure esku-hartzearen trakzio elementua ahulenen eskubideak babestea dela alde batera utzi gabe.

Arartekoan erabiltzen dugun beste ikuspegi oso garrantzitsua nerabeena da, direla kontsumitzaileak edo ez. Hori iaz aurkeztu genuen EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan izeneko txosten bereziko egindako lanaren ondotik lortu dugu.

Arartekoak txosten hori egiteko hartutako konpromisoak Eusko Legebiltzarrak onartutako legez besteko proposamen bat zuen oinarri eta horren bidez "Arartekoari eskatzen zaio nerabeek alkoholaren eta beste droga batzuen inguruan duten kontsumo problematikoen eta mendetasunaren eta horiei erantzuna emateko baliabide publikoen eskuragarritasunaren gaineko txostena egin dezan" (2006ko urriaren 16ko osoko bilkura).



Horrez gain, gure ustez, oso garrantzitsua zen nerabeek drogak kontsumitzeko duten jarrera isolatutako fenomeno gisa ez aztertzea, gure gizarteko testuinguruan baizik.

Hala, nerabeek drogak kontsumitzeari buruzko politikak koherenteak izan behar dute herritar guztien politika eta jarduerekin. Beti sustatu behar dute bizimodu osasuntsua, eta, horretarako, beren helburuak eta jarduerak kasuan kasuko baldintzetara egokitu behar dira, alegia, zenbait faktore kontuan hartuz, adibidez: adina, zaugarritasuna edo eragin handieneko esparruak.

Egunean zehar datu asko sortuko badira ere, aipatu txostenean jasotzen diren horietako batzuk mahaigaineratu ditugu.

Nerabeen % 44,5k probatu du haxixa bizitzako unereren batean; azken urtebetean, % 35,5k, eta azken hilabetean, % 26k. Erretzeko ohitura duten pertsonen artean (azken hilabetean), % 8,2 cannabisaren arriskuko kontsumitzailetzat hartzeko modukoak dira.

Ikasle gehienek noizbait drogak probatzen badituzte ere (batez ere tabakoa, alkohola eta cannabis), egia da gehienek ez dutela jarraitzen drogak aldizka kontsumitzen denbora aurrera joan ahala. Hortaz, garrantzitsua da noizean behingo kontsumoak, ohiko kontsumoak, arrisku handiko kontsumoak, mendetasuna... desberdintzea.

Cannabisaren kontsumoari dagokionez, interesa piztu da hura kontsumitzen duten pertsonentzat berariazko diagnostiko bat ezartzeko. Europar Batasunean irizpidea da azken hilabetean *cannabisa* 20 aldiz edo gehiagotan kontsumitu duten pertsonak arriskuko kolektibotzat har daitezkeela, hots, kontsumo eredu arazotsua garatzeko joera izan dezaketela. EAEn aztertu den kolektiboan, % 8,2 lirateke, Europar Batasunaren irizpideen arabera, arriskuko kolektiboaren definizioan sartzeko moduko ikasleak.



Onartu beharra dago droga hori erabiltzea normalizatu egin dela, neurri batean. Cannabisa, testuinguru batzuetan, beste garai batean tabako kontsumoa bezain normalizatua dago. Beharbada, tabakoa ordezkatu ere egin du, nerabezaroan nork bere burua kokatzeko, identifikatzeko eta irudikatzeko moduetan; hartara, tabakoak garai batean ematen zituen identitate eta heldutasun ezaugarriak orain *cannabisak* ematen ditu, ziurrenik.

Besterik gabe, hitza Kriminologiaren Euskal Institutuko zuzendariari eta jardunaldi honetan guztion anfitrioi izango den Jose Luis de la Cuestari emango diot.